

noaua



**Partehartze prozesuko
galdetegia betetzen hasi
dira Santueneko auzotarrak**

**Musika eta dantza,
NOAUA! Kulturaldiaren
azken txanpan**



**Herriko saltokiak
plazara aterako dira
azaroaren 28an**

6. or.

KAFE GARAIA

Oidui Usabiaga:

“Ikuskera kritiko gutxi
dago jarduera fisikoaren
eta kirolaren esparruetan”

Otar-Goxo

Elifkagaia k
Alimentación

AZAROATIK AURRERANTZ
EGUN GUZTIA ZABALIK
OSTEGUNA ETA OSTIRALETAN

8:30TATIK
ARRATSALDEKO
20:00TARA

ETXERAKO ZERBITZUA - ESKAERAK

943 36 55 81
677 64 27 76

DOAN!



KALEFIT

bueltan da Usurbilen!

Astelehen eta Asteazkenak (15:00)
edo Astearte eta Ostegunak (19:15)

Froga eguna eta matrikula DOAN



Jarri gurekin kontaktuan
whatsapp bidez 688 610 932.

Mugitu zure osasunagatik



BAZKIDEEN TXOKOA

noaua! euskararen aterpe



4 saski zozketatuko ditugu
azaroaren 22an



Abenduak bitarte bazkide egiten bazara Usurbilgo komertzioetan erabiltzeko 150€-ko erosketaren bonoaren zozketan parte hartuko duzu
943 360 321 / elkarte@noaua.eus

Albisteak iruditan

Organoa plazaratzen

Organoen balioa nabarmentzeko Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Musikenek antolaturiko “Gipuzkoako Organoak Plazara” zikloa Usurbilera heldu zen azaroaren 8an. “Masterklas” saioa eskaini zuen Brett Leighton musikari australiarrek, Salvatore Parrokian.

Emanaldiarekin batera, berarekin ikasteko aukera izan zuten saiora hurbildutako Musikeneko ikasleek. Atun, Tolosa, Andoain, Donostia eta Oiartzun ere zeharkatu zituen zikloaren bidez, herrialdeko hainbat organoetara “gerturatzeko aukera dute kontzertuen eta maisu handien hitzaldien eskutik”, antolatzaileen esanetan.



Brett Leighton musikari australiarrek “Masterklas” saioa eskaini zuen azaroaren 8an, Salvatore Parrokian.

Laburrean

Bederatzi Covid19 kasu azken astean

9 kasu berri detektatu ditu Osasun Sailak Usurbilen iragan aste osoan. Ere mu horian jarraitzen du udalerri honek. 110,97tik 190,23raino igo da intzidentzia.

Gripearen aurkako txertoa, denon eskura

Orain arte arrisku taldeek har zezaketen txertoa. Aurrerantzean jada herritar orok. Hitzordua ordea aurrez eskatu behar da ambulatiora deituta, 943 36 15 43.

Maria Jesus Etxeberriaren erakusketa Sutegin

Azaroaren 15etik 25era argazkiak eta margolanak jarriko ditu ikusgai Sutegiko erakustaretoan. Ordutegi honetan zabalduko du erakusketa: 16:30-18:30.

noaqua

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaqua.eus /// www.noaqua.eus
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkariako koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Diseinua: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaqua.eus

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Harremanetarako:
erredakzioa@noaqua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Ainhoa Azpirotz

Ez da dirua

NOAUA!ko bazkide-tzan baja ematera noa. Hasieratik naiz bazkide, baina uste dut oraingoan baja emango dudala. Astero jasotzen dut aldizkaria etxeko buzoian, baina nire bizilagunek ere berdin-berdin jasotzen dute bazkide izan gabe. Gainera, gaur egun Interneten sartu eta webgunean dena agertzen da, paperean baino lehenago. Eta mugikorreko aplikazioarekin ere dena ikus daiteke.

Bazkideen artean zozketatzen den saskia ere ez zait inoiz tokatu, eta seguru ez zaidala inoiz tokatuko. NOAUA!k antolatzen dituen kultur ekitaldietan bazkideok prezio berezia izaten dugu, baina total, askotan ez naiz joan ere egiten eta hori ere ez dut asko aprobetxatzen.

Gainera, bazkidetzan baja emanda dirua aurreztuko dut, urtean 40 euro. Eeee.... beno.... 40 euro... egia esan... ez da dirua. Urte osoan zehar beste makina bat gauzatan gastatzen dugu gehiago, bai. Asteroko erosketetan aise xahutzen dira 40 euro. Sagardotegi garaian ez dugu planteatu ere egiten diruagatik sagardotegira joan gabe geratzerik, eta gauza bere kintoko bazkari-afarie-



"40 euroekin txapa bakoitza buruz gora jarri daiteke, NOAUA!k herritarrentzat lanean jarraitzeko. Eta... 40 euro... ez da dirua".

AINHOA AZPIROTZ

"Usurbildarra izateaz gain, NOAUA!tarra izateko aukera ematen dit bazkide izateak, eta horrek badu azaltzen erraza ez den plus bat"

tan. Argiaren faktura ere hant di samarra izan ohi da, baina ez diogu argi gutxiago gastatzeko erronkarik jartzen geure buruari. Gauza bere gasolinarekin, gero eta garestiagoa den arren depositua betetzea, ez ditugu gure joan-etorriak murrizten edo beste modu batera planifikatzen.

Egia esan, gauza batzuk isil-isilik ordaintzen ditugu, eta beste batzuk... kosta egiten da, alajaina.

Gazteen kasuan 40 eurora ez da iristen bazkidetza; 25. urteurreneko kanpainarekin 25 eurotan bazkide izan daitezke. Hori ere ez da ba dirua. Pentsa zenbat gastatu dezaketen ikasketak ordaintzen, Nike edo Adidas zapatilak erosten, autoko gida-baimena ateratzen edo aisialdian. 25 euro ez da dirua.

Orduan, zergatik ari naiz bazkidetza uztea pentsatzen? Ez bada dirua eta NOAUA!rentzat garrantzitsua baldin bada bazkideen laguntza ekonomiko hori, ez dut arrazoirik baja emateko. Herria herritik egiten jarraitu nahi du NOAUA!k beste 25 urtetan: Errigora, tren eta autobus ordutegia, agenda eta antzeko zerbitzu xume eta funtsezkoak eskaintzen; Plis plas txalo eta jolas, Zirimara, Uda Jolas, kultur hamabostal-

dia, Laburbira, euskarazko pelikulen emanaldiak, Inauteriak, Pirritx eta Porrotx pailazoen emanaldia eta San Tomas azoka antolatzen; herriko ekimenetan parte hartzen eta abar. Eta horretarako behar ditu bakoitzaren 40 euro horiek. Guztion ekarpen xumearekin herriko eragile izaten jarraitzeko eta herriko bizitza kulturala, aisialdikoa eta abar bizirik mantentzeko. Herritarrentzako lanean jarraitzeko.

Bai, horretan lagundu nahi dut, nahiz eta bazkide izan gabe ere aldizkaria buzoian jaso, webgunean ikusi edo mugikorrean kontsultatu. Usurbildarra izateaz gain, NOAUA!tarra izateko aukera ematen dit bazkide izateak, eta horrek badu azaltzen erraza ez den plus bat: herriko elkarte sendo bateko partaide izatearen sentsazioa, NOAUA!ko ateak irekita izatearen segurtasuna, beste herritar askorekin -ezagun, ezezagun, gazte, adineko, gertuko, urrutiko... zerbait partekatzearen xarma... Bazkide zaretenok jakingo duzue zertaz ari naizen, eta bazkide egiten zaretenok berehala sumatuko duzue hori dena. Eta... bide batez, saskia tokatzeko aukera izango dugu denok.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpirotz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Luis Aranalde

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Zuen publizitatea hemen

943 360 321
publizitatea@noaua.eus

Sagardo plazan esku hartzea egingo du Udalak datozen asteetan

Udalak Sagardo plaza berrakibatze esku hartzea egingo du datozen asteetan, Juntura kooperatibaren eskutik. Hiri-gintza komertzialaren ildoari jarraiki, egoteko leku atsegin bat sortzea da esku hartzearen helburua. Horretarako, zenbait altzari jarriko dituzte, mahaia eta eserlekuak batez ere, eta pintaketa lanak egin, oinezkoentzat sarbideak markatuz.

Sagardo plaza gunela lasaia da eta hori mantentzea bermatu nahi du Udalak. Esku hartzea arina izango da; dagoena aprobetxatuz, elementu berriak gehituko dituzte. Hala nola, mahaia eta eserlekuak gehituko dituzte, egonean egoteko leku atsegina izan dadin.

Azken aldian herrigunean egindako beste zenbait esku hartzeren filosofiar jarraitzen dio Sagardo plazakoak ere.



Mahaia eta eserlekuak gehituko dituzte, leku atseginagoa izan dadin.

SAGARDO PLAZA

“Esku hartzea arina izango da; dagoena aprobetxatuz, elementu berriak gehituko dituzte”

Kale Nagusian egindakoak dira azkenak: Olanoenea plaza eta 10. zenbakiko pasabidearen berritzea, besteak beste, Irantzu Lekueren mural baten bidez. Guztien helburua

da oinezkoak igarotzeko eta egoteko leku atseginak sortuz tokiko merkataritza indartzea. Udalak era horretako hainbat esku hartze egin ditu: Mikel Laboa plazara iristeko oinezko pasabideak hobetu ditu Zubiaurrenea-Errekatzkitik eta Artzabal- Olarriondotik; Mikel Laboa plaza oinezkoentzako egokitu du, eta handik Kale Nagusira iristen diren Irazu, Etxebeste eta Hirutasun kaleak eraberritu dituzte.

Hilabete barru hasiko dira Sutegiko fatxadako obrak

Abendu erdialdean hasiko dira Sutegiko fatxada berritze-ko obrak hainbat hilabetetako atzerapenaren ostean, eta hilabete eta erdi beharko dituzte lanak amaitzeko. Udan egitekoak zituzten, baina lan kargatik atzeratu egin behar izan dute.

Aldaketak erabiltzaileentzat

Fatxada egokituko dute, energetikoki eraginkorragoa izan dadin, eta goiko solairua itxi eta taldeka lan egiteko espazioa sortuko dute, fatxadatik kendutako materiala berrerrabiliz. Lanek iraun artean, mugak izango ditu zerbitzuak. Liburuen mailegua bermatuta egongo da, baina ez ikasteko giroa. Horregatik, udalak erabaki du Potxoeneako sotoa gordetzea, liburutegiko ordutegi berean, ikasteko lekua behar duten erabiltzaileentzako.

Ika-mika

Gabirai bat, hilabete batean tiroz bota duten laugarren hegazti babestua

Eguzkik Fiskaltzan salatu du gabirai bat (*Accipiter nisus*) tiroz bota zutela urriaren 27an Andatza aldean, Usurbilgo udalerrian. Partikular batek balkoi batean zaurituta aurkitu eta, Igeldoko Arrano Etxera eraman zuen arren, hegaztia handik gutxira hil zen.

Beraz, gabirai hori da urrian tiroz bota zuten espezie babestuetako laugarren alea, edo, hobeto esan, ezagutzen dugun laugarren alea. Izan ere, Eguz-

kik Fiskaltzan salatu zuenez, urriaren 6an arrano txiki bat (*Hieraetus pennatus*) zaurituta agertu zen Errezilen eta 16an, berriz, elanio urdin bat (*Elanus caeruleus*) Seguran. Arranoa ere handik pixka batera hil zen eta elanioa gaur egun osatzen ari da. Halaber, urriaren 24an belatz handi bat (*Falco peregrinus*) hil zuten Jaizkibelen, hori ere tiroz.

Hilabete epean gutxienez babestutako lau hegazti bota izanak agerian utzi du urteetan salatu dugun arazo kroniko

bat, Aldundiak, alor honetan eskumenak dituen administrazio nagusiak, orain arte behar bezala tratatu ez duena. Horregatik poztu ginen lehengoan Jaizkibelgo hainbat ehiza-postu itxiarazi zituelako, postu horien inguruetan belatz bat tiroz bota ondoren (eta, esan dezagun bide batez, Eguzkik Fiskaltzan salaketak jarri ondoren). Alabaina, orduan esan genuen bezala, ikusteko dago momentuzko erreakzioa izan zen, urrian kasuak pilatu zirelako, edo benetan Aldundiaren

politika berri baten abiapuntua den. Premia, behintzat, bada, gaur ezagutarazten dugun Usurbilgo gabiraiaren kasu berriak berriro agerian utzi duen bezala.

Behar bezainbeste aldiz errepikatuko dugu babestutako hegazti bat tiroz botatzea ingurumenaren aurkako ustezko delitua dela, kartzela-zigorra ere ekar dezakeena. Bada, hemen hegaztiak tiroz botatzen dira eta inoiz gutxitan izaten du zigorrak.

Eguzki Talde Ekologista

Oidui Usabiaga: “Eskolak emateko orduan, gozotasun bat ematen du aurrez aurrekoak”

Oidui Usabiaga Arruabarrena EHUKo irakaslea da. Heziketa Fisikoa eta Kirola sailean ari da lanean, Gasteizko campusean. Usurbilen, Zirimara egitasmoaren sustatzaileetako bat izan zen. Bi ardatz nagusi hauen inguruan jardun dugu, luze-zabal, gaurko gure protagonistarekin.

NOAUA!ren urteurrena ospatzen ari gara hilabeteotan. Zu non zeunden duela 25 urte? Zertan ari zinen?

Oidui Usabiaga: Ba duela 25 urte ikaslea nintzen. Orain eskolak ematen ditudan zentroan bertan. Ikasi nahi nuen hura ikasleko aukera izan nuen. Eta asko gozatu nuen. Gasteizko ostegunak, eskolak... Topera bizi izan nituen. Oso garai ederrak izan ziren baina oraingoak ere halakoxeak dira.

Toki askotan, pantailak ordezkatu ditu eskola presentzialak. Unibertsitatean ere hala izango zen. Teknologia eskaintzen dituen aukerak onerako izan direla esango al zenuke?

Eskolak ere eman ditugu. ‘Bimodala’ zer den ikasi dugu. Modu



“Nire irakasle lanean, aurrez aurrekoak asko apreziatzen dut”. EHUKo irakaslea da Gasteizko campusean.

OIDUI USABIAGA

“Zoritxarrez, ikuskera kritiko gutxi dago jarduera fisikoaren eta kirolaren esparruetan”

bimodal delakoak ekarri du saio batzuk etxetik egiteko aukera izatea, eta gainontzekoak unibertsitatean bertan. Astero txandakatzen gara eta etxetik aritu izan garenean, benetan

hotza izan da (komunikazioa). Hori da dudaren sentsazioa. Irakasleentzat eta ikasleentzat. Inorrentzat ez da gustagarria izan, hala uste dut nik. Baina ahal den duintasun handiarenekin aurrera egiten saiatu gara. Nik nire irakasle lanean asko apreziatzen dudana da aurrez aurrekoak. Fisikoki bertan egotea. Gure ikasketak gainera oso praktikokoak dira eta bertan egotearen bizipen hori ezin da, nire ustez,

alde batera utzi. Beste modu batzuk bila daitezke eta agian, eskola mota batzuetan interesgarria izan liteke. Teknologia berrien erabilera balekoa izan daiteke, baina aurrez aurrekoak beste gozotasun bat eta beste gertutasun bat ematen du.

Musukoak edo beste aldagai batzuk ere sartu dira jokoan. Espresioa galtzera iritsi gara... Zalantzarik gabe, aurrez aurrekoaren alde egingo nuke beti.

“Integrazioa eta inklusioa ez dira gauza bera”

NOAUA! Hariketan: ekitatea, jarduera fisikoa eta kirola ikerketa taldeko partaidea zara. Dibertsitatea, ekitatea eta inklusioa abiapuntutzat harturik, kirola, aisia eta heziketa fisikoaren inguruko ikerketa bat burutu duzue.

Oidui Usabiaga: Kirolaren ikuskera nahikoa onbera dugu orohar. Kirolak eta jarduera fisikoa, tresna gisa, oso baliagarriak izan dai-

tezke. Hori nabarmentzea garrantzitsua da. Zoritxarrez, ikuskera kritiko gutxi dago esparru horien inguruan aritzen garenean.

Hitzak oso erraz erabiltzen ditugu, ordea. Integrazioa eta inklusioa, esate baterako. Ez dira gauza bera. Integrazioa eta inklusioa ez dira gauza bera baina nahikoa erraz baliatzen ditugu.

Hariketan taldearen helburu nagusia beti izan da bazte-

rrean bizi diren edo jarduera fisikoa bazterrean duten horien ahotsak nabarmentzea; ikuspegi desberdinak kontuan edukitzea.

Aurrerapenak egin dira. Zalantzarik gabe. Hala ere, zuloak uste baino handiagoak dira. Eta, era berean, politikoki zuzena izatetik praxiaren zera horretara salto handia dagoela esango nuke.

Batzuetan zaila egiten da transformazioa, baina talde

honen helburu nagusietako bat gizarte transferentzia horretan eraldaketak sortzen laguntzea da. Erabili dezagun gure tresna baliagarri hau benetan behar den horretan, eta behar duen horri laguntzeko.

Hariketan taldeak ikuskera hori du, eta bitxia bada ere, eroso sentitzen gara ikuskera deseroso horretan. Baina era berean, ekarpen bat egiteko gogotsu.

“Haurrengan jarri behar da fokua, beraien beharretatik abiatuta programazioa sortzeko”

**NOAUA! Zirimara eskaintza-
ren sustatzaileetako bat izan
zinen. Bide laburra osatu du
baina orain arte egindakoa
ikusita, zer nolako balorazioa
egingo zenuke?**

Oidui Usabiaga: Nik oso balorazio positiboa egiten dut. Pertsona asko egon dira hausnartzeko azken urteotan. Eta noski, ni laguntzaile izan naiz, ez dakit zenbateraino sustatzaile izatera ere iritsi naizen, baina zer pentsatua emateko abiapuntua jarri genuen pertsona desberdinen arteko elkarlanarekin.

Aldaketak, nola ez, beti sorrazten du zerbait. Urak mugitzen ditu. Halako deserosotasuna sortzen du; erresistentzia modukoa hainbaten partetik. Era berean, politena izan da hezitzaileek beraiek parte hartu dutela modu aktiboan Zirimararen inguruko



Zirimarak bere ibilbide laburrean egin duen eskaintzarekin pozik da. Hala ere, “eskaintza aberatsago bat eta anitzago bat egin beharko genuke, haurrentzat eredu inklusibo bat izan dadin”.

OIDUI USABIAGA

“Usurbilen beti egin da lan ona Eskola Kirolaren inguruan edo Zirimararen aurreko proiektuetan”

hausnarketa prozesuan.

Pausoa ez genuen guk eman,

ez ginen kanpotik etorri “hau horrela egin behar da” esatera. Aldaketaren erabakia beraiegan utzi genuen: “hobetsi egiten baduzue aldaketaren beharra dagoela, zuek eman pausoa”. Hori oso puntu garantzitsua iruditzen zait.

Gainontzean, uste dut Usurbilen beti lan ona egin dela

Eskola Kirolaren inguruan eta baita aurreko proiektuetan ere. Iruditzen zait oso ongi egiten zela lan hemen, baina agian –eta hau batzuetan zaila da ulertaraztea– gauzak oso ondo eginagatik ere, batzuetan bazeuden pertsona batzuk agian ez zuten ikusten beren burua edo beraien seme-alaba Eskola Kirola eredu horretan.

Zirimararekin saiakera izan da ea lortzen dugun pertsona horientzat aukera berriak sortzea. Inklusioa hori litzateke. Eskaintza are aberatsagoa eta anitzagoa egin beharko genuke. Haurrentzat eredu inklusibo bat izan dadin. Eskaintzak, ezinbestean, aniztasun handiagoa behar du. Haurrengan jarri behar da fokua lehenengo, beraien beharretatik abiatutako programazioa sortzeko.

“Ibilbide oparoa ikusten diot NOAUA!ri, herritarrok pixka bat jarrita eta zuek horri bide emanda”

**NOAUA! Euskararen normalizazioan eragiteko sortu zen NOAUA! Kultur Elkartea. He-
dabide gisa, paperean eta sarean ari gara. Elkarte bezala, kultura arloan eta aisialdian. 25 urteko ikuspegia duzun aldetik, NOAUA!k zer du faltan eta zer du soberan?**

Oidui Usabiaga: Esango nuke sortzea bera izugarria irudituzitzaiala bere garaian. Izugarria, gabezia bati erantzuten ziolako.

Modu lokalean, bertako beharrei erantzun die NOAUA!k. Herritarrek bere sentitzen

duten proiektutzat daukat NOAUA!. Hor lanean zaudeteno beti egiten dizuet txantxa berbera. Usurbilgo edozein ekitalditan ez da posible zuek ez aurkitzea. Ezinezkoa da, ezin dizuegu alde egin! Ekitaldia non, NOAUA! han.

Gainera, garatzen joan den proiektu bat izan da. Nik hala bizi izan dut behintzat. Aldizkari batetik askoz haratago doala gaur egun NOAUA!. Sustatzaile gisa, kultur eragile gisa eta baita aisialdiaren arloan ere. Eta eraldaketa hori positiboa iruditzen zait. Herritarrek

ere asko baloratzen duten kontua dela esango nuke. Momentu honetan gauza askotarako jotzen dugu zuengana eta, batean zein bestean, NOAUA! tartean dabil beti. Hori herri ikuskera batetik oso eraginkorra da. Zuek ere, entzuteko prestutasun horretatik, oso erraz erantzuten diezue sortu izan diren beharrei. Gertutasun hori azpimarratzekoa dela iruditzen zait.

25 urte eta gero, herri izaera horrekin segitzen du NOAUA!k. Herritarrei adierazten bere egin dezaketela, halako ekitaldia

antolatu edota halako egitasmo berria sortzeko garaian.

Aurrera begira ibilbide oparoa ikusten diot NOAUA!ri, herritarrok pixka bat jarrita eta zuek horri bide emanda.

Kanpora joaten naizenean, kongresuetara adibidez, harrigarria iruditzen zaie horrelako egitasmo bat, hain herrikoia, hain antolatuta, hain zerbitzu eskaintza zabalarekin. Harrituta gelditzen dira horrelako proiektuekin. Beraz, %100ean prest nazue, ahal dudanean behintzat zuei esku bat botatzeko.

Hilabete honetan hasiko dira Aginagako kolektorearen obrak egiten

Aginagako saneamendua osorik egiteko akordioa erdietsi dute Euskal Ur Agentziak eta Añarbeko Mankomunitateak, eta hil honetan hasiko dira obrek. Osinalde eta Aginaga arteko ur zikinak Loiolako araztegiraino eramateko azpiegitura nagusia eraikitzea dute helburu obrek, eta, aurreikuspenen arabera, 22 hilabete beharko dituzte lanak egiteko: 5,4 milioi euroko inbertsioa izango da.



Aurreikuspenen arabera, 22 hilabete beharko dituzte lanak egiteko. 5,4 milioi euroko inbertsioa egingo dute.

2019ko otsailean jada onartu zuten bi erakundeek Aginagarako saneamendu proiektua. Hiru fase definitu zituzten, baina lehenengo biak soilik egitea adostu zuten, hirugarrena gauzatzeko bermerik gabe. Udalak hiruak batera egiteko eskatu izan die, eta, azkenik, Urak-ek eta Añarbek aurten adostutako hitzarmenean hiru faseak barne hartzea lortu du.

Lehenengo fasean, HUPE Hondakin Uren Ponpa Estazio bat eraikiko dute Txokoalden, eta Osinaldeko HUPEREkin lotu; Txokoaldekoaren bitartez, bertako eta Santueneko isuriak Osinaldeko sistema orokorrean eramango dituzte. Bigarren fasean, Txokoaldeko eta Agi-

OBRA NAGUSIAK "Osinalde industriagunea, Txokoalde eta Aginaga izango dira obren hiru gune nagusiak"

nagako HUPEak lotuko dituzte. Aginagako kaxkoko isuriak jaso, eta Aginagako HUPE beritik Txokoaldeko eramango dituzte, Oria ibaia gurutzatuta. Hirugarren fasean, Aginagako erriberan kolektore nagusia egingo dute, eta kolektore horri hainbat hodi jarriko dizkiote, gero udalak egingo duen proiektuaren bitartez, Aginagako etxebizitzetara konektatu eta ur zi-

kinak jasotzeko.

Inbertsio esanguratsua da egingo dutena, obra osoaren kostua 5,4 milioi eurokoa baita: kostuen %60 Urak-ek hartu du bere gain, baita kontratazioa eta obra zuzendaritza ere; Añarbek gainerako %40 finantzatu du. Obraren hiru faseak Osinalde industriagunea, Txokoalde eta Aginaga dira obren hiru gune nagusiak: guztien ur zikinak jaso eta Loiolako araztegitara bideratzea da helburua. Txokoalden euri urak eta ur zikinak bereizteko azpiegitura eraikia dute 1997ko uholdeez geroztik, baina ur zikinak jasotzeko azpiegitura falta dute, batzuek zein besteek Oria ibaian bukatzen dute.

Marsel magoa Sutegin izango da azaroaren 24an

"Kolorez jantzita" ipuin musikatuaren saioak jende asko erakarri zuen Sutegiko auditoriora.

Azaroari dagokion "Udazkena Liburutegian" zikloa borobiltzeko, magia ikuskizuna iragarri dute hilaren 24rako. "MagiaZ: Magia eta Zientzia uztartuz, Marsel margoarekin" udal liburutegiak antolatu du. Emanaldia azaroaren 24an egingo da, 18:00etan Sutegin. Izen ematea, aurrez usurbilkultura.eus plataforman.



"Kolorez jantzita" saioarekin txiki geratu zen Sutegi.

Musika Santueneko kaleetan

Auzoko Gure Elkartea jubilatuen elkarteko tabernaren eta Santuenea Kultur Elkarteko lokalaren aurrealdean. Azaroaren 27an, Dj Gorka Mendi arituko da auzoa giron, 18:00-20:00 artean.

Santa Zeziliren omenezko ekitaldiak bi egunetan

Hala antolatu dute aurtengoan. Aurrekoetan herrian barrena egiten zuten kalejirarekin eta horren ostean, Sutegin kontzertua eskainita ospatzen

zuten Zumarte Musika Eskolakoek Santa Zezili eguna. Aurten hitzordua bi egunetan zatitzea erabaki dute. Sutegiko kontzertua azaroaren 23an

izango da, 18:30ean. Musika Eskolako talde instrumentalek eta abesbatzek parte hartuko dute. Azaroaren 25ean izango da kalejira, ordu berean,

18:30ean abiatuko da musika eskola paretik. Trikitixa-pandero taldeak, Musika Txokoko eta abesbatzako ikasleek eta txarangak hartuko dute parte.





MANIFESTAZIO NAZIONALA AZAROAK 20 • BILBO

ASKE
ETA BERDINEN
EUSKAL HERRIA

Lortu arte!



- ① **Nazio librea**
Erabakitzeko eskubidea
eta askatasuna
- ② **Nazio justua**
Aberastasunaren banaketa
eta duintasuna
- ③ **Nazio feminista**
Eskubideak eta
parekidetasuna
- ④ **Nazio ekologista**
Lurra eta bizitza
- ⑤ **Nazio antifaxista**
Demokrazia
eta aniztasuna
- ⑥ **Nazio euskalduna**
Hizkuntza nazionala
- ⑦ **Nazio baketsua**
Presoen etxeratzea.
Aitortza, erreparazioa
eta ez erreplikatzeko
bermeak

AUTOBUSA
USURBILGO KIROLDEGITIK
15:00

Izena emateko zerrendak:
Berdaxo, Txirrista, Aitzaga
eta Txiriboga tabernetan



ehbildu

Partehartze prozesuko galdetegia betetzen hasi dira Santueneko auzotarrak

Uda ostean, Santueneko parte-hartze prozesuari ekin zioten auzotarrak, eta udaberrian iragarri bezala, galdetegi bat prestatu dute. Hilaren 21era arte betetzeko aukera izango da, online Udalaren webgunean eta sare sozialetan zein paperean. Ostiral arratsaldean Gure Elkartea tabernaren parean jarri ziren laguntza behar zuten herritarrei lagundu eta orriak banatzeko. Datorren larunbatean, hilaren 20an, ere bertan egongo dira goizean.

Santuenea Elkarlanean talde eragilea, Auzo Planaren definizioa dinamizatzeko sortu zen eta atea irekita dauzka edozein auzokidek bertan parte hartu nahiko balu. Usurbilgo Udalaren babesarekin eta



Datorren larunbatean, hilaren 20an, Gure Elkartea tabernaren parean egongo dira berriro. Laguntza behar duten herritarrei lagundu eta orriak banatzeko.

Hiritik At Koop-en laguntzaz, urrian zehar 'sukalde-lana' egiten egon ziren, eta iritsi da unea plazara salto egiteko. Talde eragileak galdetegi bat prestatu dute horretarako, auzokide guztien artean egin dezaten auzoaren argazkia: zer dugu

hobetzeko Santuenean, epeertaineko ikuspegian? Zeintzuk dira lehentasunak? Ba al dugu gaurdanik proposatu nahi dugun ideiarik?

Espazio publikoaren eremuan, mugikortasunean, irisgarritasunean, zaintza, ekipa-

mendu zein zerbitzu publikoen eremuan, edota, elkarbizitza zein auzo-antolaketaaren esparruan ekarpenak erraz jasotzeko tresna da galdetegia. Noski, gai berriak proposatzeko aukera ere izango da bertan.

Proposamen fasea, 2022an

Behin galdetegiak jasota, ondorioak bildu eta sakontzen jarraituko dute. Azaro eta abendu bitartean, auzo-txangoak burutuko dituzte, oraindik zehazteke dauden datetan, eta diagnostiko osoaren aurkezpen ireki bat ere egingo dute urtea amaitu baino lehen. Ondo bidean, 2022 urtearen hasierarekin batera proposamen fasea ireki ahal izango dute, Santuenea hobetzeko tresna izango den Auzo Plana eraikitzeko.

**Hikaratu,
beldurrik gabe**

GAIA
HIKA (Noka edo Toka)
ari diren elkarriketak

Instagram eta TikTok lehiaketa

14 eta 20 urte arteko gazteak, bakarka nahiz taldean
Sari-banaketa abenduaren 2an, 18:00etan Sutegin

EPEA
bideoa
grabatu eta
bidaltzeko azken
eguna abenduak 1

SARIA
HURBILAGOKO
dendetan erosketak egiteko
100 euroko Bi opari-txartel

Oinarriak:
noava.eus edo
eskaneatu
QR kodea

ETORKIZUNA ERAIKIZ CONGRESS

Building the Future

**Kursaal
Abenduak
13-14
2021**

Kongresu honen xede nagusia Etorkizuna Eraikiz ekimena nazioartean aurkeztea eta kontrastatzea da. Izan ere, Etorkizuna Eraikiz gobernantza irekia eta lankidetzazkoa ulertzeko eta ezartzeko modua da. Gipuzkoa Foru Aldundiak sustatua eta finantzatua, Euskal Herriko Unibertsitatearen, Deustuko Unibertsitatearen eta Mondragon Unibertsitatearen parte-hartze aktiboarekin. Hauek dira Kongresua antolatu duten lau erakundeak.

Izen-ematea:

www.etorkizunaeraikizcongress.com



BAZKIDEEN TXOKOA noaua! euskararen aterpe



azaroak 19,
OSTIRALA,
22:00 Suteği

KONTZERTUA
Ruper Ordorika

*2 sarrera zozketatuño ditugu
ehitaldi bañoitzeño azaroaren 17an*



azaroak 21
IGANDEA
19:00 Suteği

KONTZERTUA
Don Inorrez



Abenduak bitarte bazkide egiten bazara Usurbilgo komertzioetan erabiltzeko 150€-ko erosketaren bonoaren zozketan parte hartuko duzu
943 360 321 / elkartea@noaua.eus

leei plazak eskaintzea, sor-kuntza horien komunikazioa eta transmisioa. Udalak babes-tuko duen prozesua beraz, aza-roaren 27ko saioarekin abiara-ziko dute. “Ahalik eta parte hartze zabalena” izatea nahi dute, bertan hausnartu eta finkatuko dira eta, “etorkizu-neko helburu, funtzionamen-du eta jardun guztiak”. Guztia, “Usurbilgo etorkizuneko kul-turgileen elkargunea eraikitze-ko bidean”.

Xiberoko otarren kanpaina martxan da

Zuberoako ikastolak eta euskara laguntzeko elkartasun kanpaina abian da beste behin. Egitasmoak Usurbilen bidelagunak ditu aspalditik.

“Ipar Euskal Herrian euskarak ez du babes ofizialik. Euskara hizkuntza guttiagotua da gure lurraldean. Euskararen etxeko transmisioa Zuberoan eteten ari den heinean, Ikastolek dute euskararen transmisioa bermatzen”. Ikastolak eta euskara laguntzeko elkartasun kanpaina bueltan datorkigu Xiberoatik.

Eskaerak egiteko epea

azaroaren amaieran itxiko da

Tokiko produktu goxoez hornituriko otarren kanpaina abiarazi dute berriz. Azaroa amaierara arte bideratu ahalko dira eskabideak ikaskoli.eus atariaren bidez. Aipatu moduan, bi helburu nagusi ditu elkartasun ekimenak: batetik Zuberoako ikastolak laguntzea; eta bestetik, “Zuberoako ekoizpenak ezagutaraztea eta dastaraztea”.



Tokiko produktuez hornituriko otarren kanpaina abiarazi dute Zuberoako ikastolek.

ELKARTASUN KANPAINA

“Bi helburu nagusi ditu elkartasun ekimenak. Batetik, Zuberoako ikastolak laguntzea eta bestetik, “Zuberoako ekoizpenak ezagutaraztea eta dastaraztea”

gonbita. “Euskara susta dezagun, Zuberoako Ikastolak lagunduz!”.

Marka guztiak hautsita

lazko elkartasun kanpainak marka guztiak hautsi zituen. Orohar, udalerrri honetatik

kanpo aurreko edizioetan baino laguntza gutxiago bildu arren, Usurbilen inoizko arrakasta handiena izan zuen Xiberoko produktuen otarren salmenta kanpainak. Guztira 114 Ahüzki eta 245 Irati otarre eskatu ziren Usurbilen. Guztira 16.000 euro inguru bildu ziren! Nafartarrak taldetik eskerrak luzatu zizkieten kanpaina honetan parte hartu zuten guztiei.

Ahüzki (40 euro)

Xerriki pateia (190 g), ahate gibel berrosatua (125 g), ezti (500 g), bixkotx poltsa artisana- la (150 g), ardi gazna (550 g).

Irati (55 euro)

Xerriki pateia (190 g), ahate gibel berrosatua (125 g), axoa: xahalki xehatua saltsan (640 g), “Ezti Olha” ezti (edo hau faltatzen balitz, “Bortüko” ezti-500 g), bixkotx poltsa artisana- la (150 g), ardi gazna (550 g).

Orhi (70 euro)

Ahate gibela (200 g), bixkotx gatzatuak (80 g), lukainka idorra, azafrai erreximenta (edo hau faltako balitz, “Bortüko” ezti-250 ml), gazna (1 kg).

Informazio gehiagorako:
ikaskoli.eus

Zuhaitz Gurrutxagaren “Futbolistok II” bakarriketa Aginagan

Zuhaitz Gurrutxaga aski ezaguna da Euskal Herrian Herri Txiki Infernu Handi programa aurkezteagatik. Umorean lan asko egin du, eta bere bakarriketa berria ekarri zuten Aginagara larunbatean, “Futbolistok II”. Aurkezle izateaz gain, Realeko futbolari ere izan zen duela hainbat urte, eta horri lotutako umorezko piezarekin barrez lehertu ziren Eliza Zaharrean elkartutako dozenaka lagun.



Bere bakarriketa berria aurkeztu zuen aurreko larunbatean Aginagan.

Ruper Ordorikak Sutegin eskainiko du bira berriko lehen kontzertua

Ruper Ordorika albiste izan da egunotan, lan berria plazaratu duelako. Kuban girotutako abestiak batu ditu *Amour eta toujours* (Elkar) izenburua daraman diskoan. Bira berriko lehen emanaldia Usurbilen eskainiko du. Ostiral honetan, gaueko 22:00etan, Sutegiko auditorioan.

Ruper Ordorika euskal kantagintzak eman duen bakarlariarik nabarmenetakoa da. “80ko hamarkadan Pott literatur taldean aritu zen, eta musika arloan herri kantaren tradizioa eta rock egilearen nortasuna batu ditu, bere erara”, badok. eus atarian jasoa dagoen moduan.

Bakarlari gisa ibilbide oparoa osatu du. Hiru Truku taldekide ere izan zen hainbat urtez. Joseba Tapia trikitilariarekin eta Bixente Martinez



Ruper Ordorika Sutegin arituko da ostiral honetan. Sarreerarik ez da; lehengo astean agortu ziren guztiak.

(Izukaitez, Oskorri) gitarrajolearekin batera, herri kantutegia berritzeko ahalegina egin zuen.

Ruperrek *Amour eta toujours* (Elkar) birako lehen saioa ostiral honetan eskainiko du Usurbilen. Ez da antzekoa egiten duen

lehen aldia. 2016. urtean, Guria ostatua (Elkar) diskoa plazaratu zuen eta Usurbilen eman zuen estreinako kontzertua.

Tio Teronen oinordekoak



Tio Teronen Semeak Mikel Laboa plazan arituko dira larunbatean, 19:00etan.

Tio Teronen Semeak taldeko dantzarien emanaldiak ikusgarriak dira. Pasioa eta umorea uztartzen dituzte euren ikuskizunetan. “Festamentua” izeneko saioa eskainiko dute larunbat honetan Mikel

Laboa plazan. Zoritxarreko egoera batean elkartzea egokitu zaio dantzari kuadrilla xelebre honi; hileta batean, hain zuzen ere. Oharra: eguraldia txarra bada, frontoian arituko dira.

Don Inorrezen kontzertua



Ezkerretara Ruben Caballero, Don Inorrez-eko gitarrajole usurbildarra. Igandean Sutegin arituko dira arratsaldeko 19:00etan. Sarreerak usurbilkultura.eus eskuragarri edota egunean bertan Sutegiko leihatilan.

Imanol Ubedak eta Karlos Aranceguik Don Inorrez egitasmoa abiatu zuten 2018an. Urte hartan *Mugiro bila* izenburua duen diskoa grabatu zuten Cádizen, Paco Loco ekoizle eta gitarrajolearen par-

te-hartzearekin. Lan berri bat plazaratu dute aurren, *Esku hutsik* izeneko. Power pop estiloko abestiak dira nagusi baina tolosar musikari hauen marka izan diren kantu la-saiak ere eskainiko dituzte.

NOAUA! Kulturaldia, azken txanpan

Azaroak 19, ostirala

■ 22:00 Rupér Ordorikak disko berria aurkeztuko du Sutegin: 'Amour eta tojour'.

■ Prezioa: 10 euro, bazkideek 8 (NOAUA!ko bulegoan eskuragarri). Agortuta daude sarrerak.

Azaroak 20, larunbata

■ 19:00 Tio Teronen semeak: 'Festamentua' Mikel Laboa plazan. Eurria bada, frontoian.

■ Prezioa: doan.

Azaroak 21, igandea

■ 19:00 Don Inorrez taldeak 'Esku hutsik' diskoa aurkeztuko du Sutegin.

■ Prezioa: 10 euro, bazkideek 8 (NOAUA!ko bulegoan eskuragarri).



Tio Teronen Semeen saiorako ez da sarrerarik behar. Mikel Laboa plazan arituko dira larunbat honetan, arratsaldeko 19:00etan (eurria bada, frontoian dantzatuko dute).

Sarrerak:

■ NOAUA!-ren egoitzan sarrerak (bazkideentzako)

NOAUA!ko egoitzan bakarrik eskuragarri) edo usurbilkultura.eus atarian.

■ Antolatzailea: NOAUA Kultur Elkartea.

■ Laguntzailea: Udala.

'Hikaratu', Tik Tok eta Instagram lehiaketa jada zabalik

Hikaratu, Tik Tok eta Instagramen parte-hartzeko lehiaketa jarri dute martxan NOAUA! Kultur Elkartek eta Usurbilgo Euskara Taldeak, 14 eta 20 urte bitarteko gazteentzat. Irabazleak Hurbilagoko dendetan erosketak egiteko 100 euroko bi opari-txartel irabaziko ditu, eta zozketa bidez aukeratuko dute abenduaren 2an. Partehartzeko azken eguna abenduaren 1a izango da.

Lagunekin, familiakoekin edo ingurukoekin hika hutsen (noka zein toka) elkarriketa bat grabatu beharko dute partehartzaileek eta Tik Tok edo Instagramen jarri beharko dute. Elkarriketa pasarte umoretsu bat, egunerokotasunari lotutako pasarte edo asmatutakoa ere izan liteke.



Irabazleak bi opari-txartel irabaziko ditu. Sari banaketa abenduaren 2an egingo da, arratsaldeko 18:00etan Sutegin.

Horretarako, Tik Tok-en eta Instagramen ohikoak diren bideo-formatuak erabili beharko dituzte: esketxak, koreografiak, bideoak... musikaz, efektuez, trantsizioez eta bakoitzak nahi dituen baliabideez baliatuz.

Ez dira onartuko eduki iraingarriak

Kontuan hartu beharko da bideoak 30 eta 60 segundu bitartekoa izan beharko duela, eta partehartzaileek banaka ere parte har dezaketela, gehienez ere 5eko taldeak osatuta. Ez

dira onartuko eduki iraingarriak biltzen dituzten lanak: giza eskubideen urraketa, bortizkeria, irainak, arrazakeria, sexismoa edota errespetu faltak.

#Hikaratu traola erabili

Bideoa Tik Tok plataformatik bertatik eta Instagrametik partekatu beharko dira, HIKARATU erabiltzailea aipatuz (@hikaratu_lehiaketa) eta #HikaratuLehiaketa traola erabiliz. Era berean, WeTransfer bidez ere helarazi ahalko dira bideoak, elkartea@noaua.eus helbidera eta beharrezko datuak jarrita: Tik Tok edo Instagram plataformako erabiltzailea eta harremanetarako email bat. Gogoan izan, nahi bestetan parte hartu ahal izango duela pertsona bakoitzak.



Ofizioen Gida



PLAKODUR

Eskaiola eta Pladurra

943 00 85 44 - 634 45 78 78



URDAINTZI

eraikuntzak

649 43 54 75 / 76

943 36 72 64

urdaintzi.euskalnet.net

· ERAIKUNTZAK · OBRAK
· BERRITZE LANAK

Josue
Igeltseritza
Igeltseritza orokorra

Fax: 943 24 34 60
Atellu pol. atellu. 28
20170 - USURBIL

606 37 21 05

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra

Telefona
693 059392

e-posta:
uraitz@uraitz.com

Geltoki Kalea 15 behe, Lasarte-Oria

ITZIRA
ERAIKUNTZAK

· gremioen koordinaketa
· berritze lanak
· sukaldeak
· komunak

943 530 337
607 119 313

errekatxiki 7, USURBIL itzira@hotmail.es

IRUARKAITZ
ERAIKUNTZAK, S.L.

· FATXADAK ETA TEILATUAK
· ERAIKUNTZAK · BARRUKO BERRIKUNTZAK
· URALITA KENTZEKO ENPRESA
BAIMENDUA

630 90 02 79 AGINAGA

GAR
GRUPO MONROY

BERRITZE ZERBITZU INTEGRALAK

943 53 72 38 - 628 45 78 39 - 628 91 72 15

reformas@reformasmonroy.com

NAGUSIA 35, BEHEA USURBIL



Antonio URRUZOLA
AROTZTEGIA

Tel/Fax: 943 376 415

Asteasuain Industrialdea, 3

BARRENETXE
Salsamendi Arregi, Iñaki
AROTZTEGIA

943 362 664

Barren Etxe kalea ZUBIETA

J. R. IBARGOEN S.L.
ZURGINTZA-SUKALDEAK
ALTZARI BEREZIAK

www.carpinteriaibargoien.arotzgi.net jribargoien@arotzgi.net

943 36 14 48 - 676 45 31 76



ARGILAN
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

629 272 859
943 361 380

BORDA-BERRI 5, baxua USURBIL



antenas Telemar

943 55 33 99

info@antenastelemar.com

Elkano kalea 13, HERNANI



APARICIO
DEKORAZIOA ETA
PINTURA LANAK

Tel. 943 36 60 59 628 883 943

Puntapax, 3 3.B. 20170 USURBIL



Enrique Alonso
ITURGINTZA
GASA-BEROKUNTZA

Oro har libratze-lanak
TB kamerakin hodi eta tximinien azterketa
BAIMENDUTAKO INSTALATZAILEA

659 675 283

Iñaki Iturgintza

BEROKUNTZA · GASA · AIRE EGOKITUA
ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA · ENERGIA BERRITZAGARRIAK

info@inakiturgintza.com - www.inakiturgintza.com

Tfnoa.: 600 024 825

zuri arrain
iturgintza

TEL: 678 45 31 48 • 943 651 465

zuriarraiturgintza@gmail.com

Rafa
iturgindegia

· ITURGIN LAN OROKORRAK · DUTEAKO HANPARAK
· KONFIGURATZAIZKO GREMIOAK · KOMUNEKO ALTZARIAK

Bordaberri kalea 1, 1 behe • 943 36 80 04



ANORGA TXIBI S.L.
KRISTALDEGIA

· komertzial instalazioak
· beira bikoitza · segurtasun beirak
· dutxa-itxiturak eta irristailuak

943 37 17 33- 610 45 93 45

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA



maiz
hornigaiak

· TRESNERIA ETA ERREMINTAK
· EGUR ETA AROTZ-LANETARAKO HORNIDURA

suministrosmaiz.com (ONLINE DENDA ERE)
Ugaldea polig. 18, USURBIL 943 36 99 39

Euskal lurraldetasuna eta historia hizpide Sutegin

Euskal Herriaren historia eta lurraldetasuna aztertutako zituzten ostegunean hainbat herritarrek Sutegiko erakusketa aretoan. Patxi Zabaleta politikari ohia, abokatua eta Euskaltzaindiako kidea izan zen hizlaria, eta hainbat mendeetatik hona gurean izandako lurraldetasuna aztertu zuen.

Hainbat nazio eta estatu berriren irakurketatik, Euskal Herrikora pasatu zen Zabaleta. Gure herriaren historian izandako sinbolo eta momentu historiko nagusiak azaleratu zituen: Amaiur, Orrega, Peñalen... Nafarroak emandako argibidetik euskal historia berraztertutako dozenaka lagunek.



Patxi Zabaletak gure herriaren historian izandako sinbolo eta momentu historiko nagusiak azaleratu zituen.

Energia komunitateak hizpide, Anerrekaren datorren hitzaldian

Hilabetea amaitzerako beste hitzaldi bat antolatu du Anerreka ingurumen elkarteak. Azaroaren 25erako hain zuzen, arratsaldeko 18:30ean Sutegiko auditorioan. Energia komunitateak hizpide izango ditu herritar batek; Alazne Arruti Bengoetxeak.

Nafarkoopeko Bulego Teknikoko ingeniaria herrietako burujabetza energetikoaz ariko da. “Energia guztiona eta guztiontzat izatea nahi dugu. Besteen menpeko bezero huts izan beharrean, gero eta herri gehiagotan, ekimenak abian jartzen ari dira energiaren kudeaketan burujabe izateko asmoz”.



Unai Pascual ekonomialaria Sutegin izan zen azaroaren 2an.

Deshazkundeaz

Klima larrialdia hartu zuen hizpide bestalde, Anerreka ingurumen elkarteak azaroaren 2an antolatu zuen hitzaldian, Unai Pascual, Ekonomialari

ekologikoa, BC3ko ikertzailea eta Gobernu-arteko IPBES plataformako kidearekin. “Trantsizioa modu erradikal batean gauzatu behar dugula jakinda, nola egin?”, galdetzen zuen.

Erantzun posible bakarra du galderak Pascualen ustez. “Energia deshazkunderari ekiten ez badiogu, ez dago irtenbiderik. Energiaren erabileraren beherakada nabarmena beharrezkoa da mundu mailan”. Ez baitago bere esanetan “egungo bizimodua mantentzeko energia berriktarri nahikorik”. Eta “lehengaiak xahutzeko eredu ekonomikoa agortua dago”.

Trantsizio erradikal horri begira, “eraldaketaren gidaritza ez dago gizartean, ezta eztabaidarik ere, hori iruditzen zait larriena”. Glasgowko goi-bilera jarri zuen adibide gisa. “Enpresek rol oso garrantzitsua dute gailur hauetan”.

ZENDOIA
ENEA taberna
Kale Nagusia 35, Usurbil

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA
ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

RPS: 28/17

20170
USURBIL

ADA
-MASAJEAK-

633 36 22 33
erreka-txiki 1, USURBIL

Azaroaren 28an, dendatik plazara

Erle Egunik ez da izango aurten, baina urteko hitzordu gozoena ospatuko litzatekeen egunak alternatiba badu oraingoan; Hurbilago azaroaren 28rako (igandea) antolatzen ari den azoka. Herri merkataritza saltokietatik erdigunera, plazara atera nahi du, dutena erakusteko. Erakusleihoa dendatik plazara lekuz aldatuko dute. Eta erosi nahi duenarentzat salgai aurkituko ditu hainbat produktu. Herriko lau merkataritza eta ostalari erakarri ditu estreinako edizioak; Lizardi liburudenda, Marije arropadenda, Saizar sagardotegia eta Otar Goxo janari denda.

Haiekin batera herriko hiru sortzaile izango dira; batetik Ione Iruretagoienak diseinatutako arropa, urte amaierara arte Itziarko Burugorri ostatuan “kolore seriea” izeneko erakusketa kokatu duen Zorione Mendez bere “Marrak” proiektuarekin eta Buztinzulo elkarteko zeramika lanak.

24 partehartzaile

Haiekin, Usurbildik kanpotik etorritako hainbat artisauen postuetan barrena osteratxo egiteko aukera izango dugu. Guztira 24 bat partehartzaile bilduko ditu azokak, antolatzaileen esanetan; kosmetika naturala, produktu jasagarriak, eskuz jositako poltsak, moda, bitxigintza... Erle Egunean etorri izan diren gozotzako zenbait postu ere azoka honetara bueltatuko dira. Aukera ederra beraz, urte amaierako ospakizunei begirako erosketak egiten hasteko.

Txikientzako eskaintza zabala frontoian

Jai kutsuko azoka izatea nahi du antolakuntzak. Beraz Dema plazan merkataritza eta artisauen postuak aurkituko dituzue. Frontoian aldiz, txikienentzako eremua. Covid19 garai



Erle Egunaren faltan, herriko merkatarien azoka egingo da azaroaren 28an.

HURBILAGO AZOKA

“Azaroaren 28ko azoka herri merkataritzaren erakusleio izango da. Erosteaz gain, herrian dugun eskaintzaren zati bat ezagutzeko aukera izango dugu”

honen aurreko urteetan, Hurbilagok gabonetan antolatzen zuen parkea hain zuzen. Formatu txikiagoan baina goiz pasa ederra egiteko eskaintza zabalarekin; puzgarriak izango dira, 3D zinea, jumping... Buztinzulo elkarteko zeramikako tailerra eskainiko du gazte-txoentzat.

Sarrerak

Herrian bizitzeaz gain, erosketak abantaila ugari eskaintzen ditu. Horietako bat, azaroaren 28ko azokari begirakoa. Hurbilago elkarteko saltokietan erosketak egitearen truke, puntuak jasoko ditu bezeroak. 10 puntu batuz gero, puzgarrietarako sarrera doan izango du azoka egunean. Bestetik, hilaren 28an herriko merkatarien postuetan 20 eurotik gorako erosketaren bat eginez gero, Hurbilago Elkarteko establezimenduetan xahutzeko 5 euroko bonoa eskuratuko du. Gainerakoan, azokan jan edana ere egongo da; Saizarrek txotxa jarriko du eta Otar Goxok txorizo pin-

txoak sukaldatuko ditu. 2,50 euroren truke hamaiketako ederra egiteko aukera bikaina eskainiko du Hurbilagok.

Ikustera sartu

Azaroaren 28ko azoka herri merkataritzaren erakusleio ere izango da. Erosteaz gain, herrian dugun eskaintza zati bat ezagutzeko aukera. Sarritan kosta egiten omen zaigu eta herriko dendetara zer duten ikustera sartu edo behar dugun produktua ote duten galdetzera. Azokak honenbestez, parada eskainiko du antolatzaileen esanetan, merkataritza eta bezeroen arteko harremana sendotzeko, herrian erosteko kultura indartu eta belaunaldi berriei helarazteko, “bezero berriak erakartzeko eta bezero direnak gertuago sentitzeko”. Gertuago aipatuta, gogoan izan, azokaz gain, eta herriko dendek erakusleio birtuala dutela eta haien berri jaso dezakezuela gertuago.eus atarian eta sare sozialen bidez.

Azaroaren 28an, Hurbilagoren azoka

- Eguna: azaroak 28, igandea.
- Ordua: azoka 11:00-14:30 artean, puzgarrien eremua 10:00-15:00 artean.
- Tokia: postuak Dema plazan, puzgarriak frontoian.
- Antolatzailea: Hurbilago.

Sarritua, herri merkataritzaren jarraitzaile izateagatik

Bi lagunentzako opari ederra irabazi du Amaia Bengoetxea Salsamendi herri-tarrak; parapente hegaldia, herri merkataritza eta ostalaritza sustatzeko zabaldu-tako sare sozialetara jarraitzaileak erakartzea helburu zuen Hurbilagoren kanpainen baitan. Bereziki gazteen artean herrian bizitzeaz gain, herrian erosteak duen garrantziaz kontzientziatu nahi du Hurbilagok. Adi egoteko gonbita luzatu digute aipatu bilgunetik; eskaintzak, produktuak... iragarriko dituzte bideetatik:

Twitter:

@gertuago

Facebook:

@gertuagousurbil

Instagram:

@gertuago

Webgunea:

gertuago.eus

Herri bizitzaren alde

Sarritua ere pozik zen. “Lagun batzuk etikatu zizkidaten argazkiak eta herriko zerbait zela ikusita parte hartzea erabaki nuen”, adierazi dio Bengoetxeak NOAUA!ri. Lagungarria iruditzen zaio ekimena, “gogorarazten dizu herriak zure laguntza behar duela, herrian kontsumitu behar duzula eta hori oso garrantzitsua dela herria bizirik mantentzeko”.



Bi lagunentzako opari ederra irabazi du Amaia Bengoetxea.

Irati Artze, Lizardi liburudenda: “Jendeak zer dugun ikus dezala”

NOAUA! Zergatik erabaki duzu azaroaren 28rako antolatu den azokan parte hartzea?

Irati Artze: Azokan parte hartu nahi genuen galdetzeraz etorri zirenean, oso oso gustura parte hartuko genuela adierazi genien. Guretzat denda kanpora ateratzea gauza handia da, herriko jendeak zer dugun ikusteko. Askok badakite baina bezero beste batzuk agian ez dira inoiz dendara sartu. Eta guretzat garai honetan azoka egitean oso garrantzitsua da, produktu berri asko ditugulako; bai liburuak, jostailuak...

Erostea eta ikusteko. Dendetara ikustera sartzea kostatzen omen zaigu.

Pandemiaz geroztik orain gehiago konturatu da jendea herrian dugunaz, eta behar dutena eskuratzeko aurrena herrian galdetzeaz. Behintzat hori irabazi dugu. Eskatutakoa



Lizardi dendakoek postu bat jarriko dute azaroaren 28ko azokan.

IRATI ARTZE

“Pandemiaz geroztik orain gehiago konturatu da jendea herrian dugunaz”

ez badugu eta ezin badugu ekarri joan beste leku batera galdetzea. Baina lehenbizi he-

rrian galdetu, eskatu.

Hilabete amaierako azokak horretan lagundu dezake?

Guretzat batez ere hori da garrantzitsua. Jendeak zer dugun ikus dezala. Erosketa puntu bat izan daiteke baita, baina horrekin batera bultzatzea dendara etortzea, zer dugun ikustera. Duela bospasei urte

plazara atera ginen eta oso gustura egon ginen.

Azokan zer jarri asmo duzue ikusgai?

Euskarazko nobedadeetan aipatzeko, Anjel Lertxundik aterako duen liburua, Irati Jimenez, Kirmen Uribe, Argiaren sendabelarren liburua... Helduentzat nobedadeak; erdaraz Julia Navarro, Carmen Mola,... Umeen-tzat ere ikusi ditugu liburu batzuk oso ilustratuak daudenak marrazki aldetik eta kontatzeko moduagatik.

Erostea ez ezik, azokako postuak ikusteko gonbita luzatu nahiko diezue herritarrei.

Hor izango gara azaroaren 28an, gustura, herriko jendeari erakusleho modukoa eskaintzen. Parte hartzea oso garrantzitsua da. Zerbait erosten dutela hobe, baina behintzat ikusi.

Marije Unanue, Marije arropadenda: “Jendeari esaten diot, dendara sartu, ikusi”

NOAUA! Zergatik parte hartuko duzu azokan?

Marije Unanue: Jendeak dendan zer dugun ikusi dezan. Batzuk dendara sartzeko lotsa edo ez dakit zer izaten duten.

Zer da plazara aterako duzuna?

Arropa, agian goiko arropak; txamarrak, kamisetak, jertseak... Denetarik pixka bat. Denda plazatik gertu dugu gainera.

Zer iruditzen zaizu halako azoka bat antolatzea?



Txamarrak, kamisetak, jertseak... Denetarik erakutsiko dute azaroaren 28ko azokan. “Denda plazatik gertu dugu gainera”.

Oso ondo. Donostiako Londres hotelean egin izan duten azokan egon izan gara. Jendeak ondo hartzen du.

Erostea baina bereziki ikus-

teko.

Dendara sartzeko kostatzen da. Jendeari esaten diot, dendara sartu, ikusi, ez duzu derrigorrez erosi beharrik, egokitzen bada erosi, baina behintzat zer dugun ikusi. Agian jendea erakuslehotik igaro eta begira geratzen dela konturatu izan gara. Horrelakoetan sartu, ikusi. Gainera, arropa etxera eraman eta probatzeko aukera ematen dugu. Arropa zehatzen bat nahi izanez gero gainera, markak “stock”a baldin badu eskatu ahal da, eta etxearen arabera, egun bate-tik bestera ekar daiteke.

Hamarnaka herritar irten ziren Behobia-Donostia lasterketan

Lasterketa ezagunaren itzulera, hamarnaka herritarrek parte hartu zuten azaroaren 14an.

Lasterkariak

Martin Larrañaga 01:10:36
 Iñaki Añorga Unanue 01:14:43
 Beñat Bereziartua 01:18:28
 Iñaki Gericia Juan 01:19:43
 Jon Tapia Lizarraga 01:20:29
 Xabier Izeta Aramendi 01:21:57
 Tito Izaguirre Godineau 01:26:33
 Ander Aisa Bengoetxea 01:29:21
 Rosa Uribe Navarro 01:29:34
 Ander Orena Irureta 01:31:30
 Salvatore Arruti 01:34:08
 Oinatz Iparraguirre 01:34:14
 Ander Aristegui Otamendi 01:36:25
 Ekhi Arrieta del Pico 01:37:55
 Jokin Pagola Bereziartua 01:38:03
 Oliver Garcia Linares 01:39:46
 Juan Alberto Roman Carro 01:41:04
 Noemi Santamaria Melero 01:41:04
 Imanol Orbegoza Aizpurua 01:42:18
 Borja Chamorro Navarro 01:44:51
 Jokin Zubiaur Blasco 01:45:24
 Alfonso Lopez Garcia 01:46:25
 Jon Gueembe Urta 01:47:11
 Axier Dominguez Prieto 01:47:14
 Maximo Garcia Sanchez 01:48:06



Herritar ugari atera ziren igandean Behobia-Donostia lasterketan.

Sergio Garcia Sierra 01:48:06
 Sergio Montes Guerra 01:48:16
 Javier Lopez-Jacoiste Ortiz 01:50:07
 Joxemari Portu Azpiroz 01:50:50
 Gema Molina Cuesta 01:51:06
 Erramun Erro Aizpurua 01:51:18
 Ekiñe Zalakain Martija 01:51:18
 Joana Lertxundi Beristain 01:51:19
 Aloña Pulido Orbegoza 01:51:19
 Amaia Añorga Manterola 01:51:19
 Izadi Azkonobieta Etxabe 01:51:19
 Maialen Esoain Peña 01:51:19
 Aroa Arruti Castresana 01:51:20
 Eli Eizaguirre Bruño 01:53:19

Maitane Eizaguirre Bruño 01:53:19
 Javier Martinez Manso 01:54:13
 Alberto Orozco Camara 02:01:05
 Ana Mediavilla Perez 02:02:32
 Luisa Rodriguez Moreno 02:10:20
 Beatriz Irasuegui 02:10:20

Patinatzaileak

Carlos Jimenez Goya 00:51:15

Oharra: Lasterketako web orrialdearen bilatzailean *Usurbil*, *Agina* eta *Zubieta* klikatuz lortu ditugu datuok.

Aldarrikapenak eta jai giroa bat eginik

Kafe Tertuliak antolatuta, bertso-bazkaria egin zuten larunbatean herriko hainbat neskek*. Askatasuna plazan. Lagunarteko bazkariaren ostean, bertso-saioa eskaini zuten, eta iluntzerako triki-poteoa egin zuten herrian zehar Ostolaza Ahizpen musika doinuen erritmoan.

Deialdi irekia

Azaroaren 25era begira deialdi berezia egin dute Kafe Tertuliakoek, sare sozialen bidez. “Usurbilgo emakumeok* jasandako eraso, bizipen, pasarteak... jaso nahi ditugu. Gero, audio batean bildu eta azaroaren 25ean herrian jartzeko asmoz. Nahi duzun moduan idatzi bizipena!”, deitu dute.



Bazkaria eta trikipoteoa antolatu zuten larunbatean Kafe Tertuliak.

Guaixe, Geuria, GiTB eta Karkara garaile 2021eko Tokikom Sarietan

Tokikom Sarien seigarren edizioako sari banaketa egin zuten aurreko astean Arrasateko Garaia Parke Teknologikoan.

Aurten, Azalik Onenaren Saria Sakanako Guaixe aldizkariaren ‘Uda Sakanan’ lanaren-tzat izan da.

Edukirik Onenaren Saria Hego Uribeko Geuria aldizkariak jaso du, “Etxerreko putzua eta Hego Uribeko uren altxorak” monografikoarengatik.

Ikus-Entzunezkorik Onenaren Saria Goierri Irrati-Telebistarentzat izan da. “Ateak itxi,



Mirari Martiarenak eta Idoia Torregaraik gidatu zuten sari-banaketa.

leihoak ireki” lanari esker jaso dute aurtengo garaikurra.

Karkara aldizkariak aurkez-

tutako “Bandera da Orion” lanak irabazi zuen Komunitatea Saria.

Zeramika ikastaroak

Buztinzulo zeramika elkar-teak ikastaro bat iragarri du, interesa dutenek zeramikaren oinarriak ikas ditzaten. Azaroan zehar izen ematea irekita egongo da 652 702 237 telefono zenbakian, goizeko 10:00-12:00 bitartean, edo bestela, buztinzulo@gmail.com helbidera idaztea nahikoa izango da.

Astean bi orduko ikastaroak proposatu dituzte, pixkanaka teknika ezberdinak ikasi ahal izateko.



Astean bi orduko ikastaroak proposatu dituzte.

ETXEBIZITZA**Salgai**

Etxebizitza salgai, kale Nagusia 39, udaletxe aurrean. 58m (bi logela) eta garaje itxia prezioan barne. 649850515.

Alokairuan

San Esteban kalean (Etxealdia) 31m²ko lokal bat alokairuan. Masajeak emateko edo estetikaz zerbitzuak emateko prestatuta dago. 655735715.

Alokairuko pisu batean gela bat behar dut. Urgentea da, urriaren 30erako beharko nuke: 605 142 943.

Usurbilen pisu konpartitu batean logela bat alokatzen da mutil edo neska batentzat. Bila bazabiltza deitu 618032966

Neska kaudimenduna, masakotak onartzen dituen etxebizitza edo gela baten bila dabil Usurbilen. Kontratua eta erroldatzea beharrezkoa. Patricia 622396941.

Usurbilgo gizonetako bat naiz eta alokairuan pisu bat hartuko nuke Usurbil edo inguruan. 659185107.

Alokatzeko etxe baten bila ari naiz. Bi pertsona gara eta txakurra daukagu. 675189500.

MOTORRA**Salmenta, garajeak**

Ezinduentzako motorra salgai. 2018ko abuztuko motorra, gutxi erabilia. 625701616.

Atxegalden garaje bat nahiko genuke alokairuan edo erosteko. 628498326.

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Olarrondo jatetxean zerbitzaria behar dute astebukaerarako. Eguerdian lan egiteko. 626 686 036.

Txapeldun jatetxean zerbitzariak behar ditugu jangela eta barrarako. Euskalduna izatea

baloratuko da. 669 527 452.

Zerbitzari bila gabiltza Aginaga sagardotegian. Deitu telefono zenbakiotako batera: 943366710 edo 943370668.

Emakume bat behar da umeak zaindu eta etxeko garbiketa egiteko; Familia zamarik gabekoa. Haurren zaintzan esperientzia izatea beharrezkoa. Nahiago da euskara ondo menperatzen dakien pertsona izatea. 638738505.

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali CV info@quantum.eus helbidera.

Txiribogan asteburuetarako langileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

LANPOSTUAK**Lan eskaerak**

Adinekoak eta haurrak zain-

tzak edota etxeko garbiketarako egiteko eskaintzen naiz. Esperientzia eta gomendio onak ditut 602568090.

Astelehen eta asteazken arratsaldeetan ingeleseko klaseak ematen ditut, norberaren etxean edo nirean. Klaseak ematen esperientzia zabala. 678106553.

Pertsona helduak, garbiketarako, peoi lanak edo pintore laguntzaile moduan aritzeko prest, gizon bat naiz. 622747833.

Pertsona helduak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest, neska bat naiz. 622747833.

Arratsetarako lan bila nabil. Euskalduna naiz, usurbildarra. Haurren zaintzan edo etxeko lanetan aritzeko prest. 616 27 37 85.

Neska orduka eskaintzen da etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko. Titulu soziosanitarioarekin. 612 433 485.

Adinekoak zaintzeko lan bila nabil. Geriatria ikastaroa egina dut. Orduka nahiz egun osoz lan egiteko prest. 604 349 970.

Nikaraguako neska arduratsua, garbiketan eta adinekoen zaintza lanetan aritzeko erabateko prest. Esperientziaduna. 602 481 854 / anisieza@gmail.com

BESTELAKOAK

Txerriak salgai. Apote bat eta 9 zerrama daukagu salgai. 6/7 hilabetetako 5 txerrikume ere bai. Interesatzen bazaizu deitu 607 668 603 (Joxe Cruz)

Ingeleseko, frantseseko eta latineko klaseak ematen ditut etxera joanda. 600766068.

Filologia ikasketak ditut, ingeleseko klaseak ematen ditut bakarka edo taldean. Maila guztiak. Harremanetan jartzeko deitu hona 660845780 edo idatzi email bat hona: bouchrahajar@outlook.com

**Zorionak Amatzxo!!**

Oso ondo pasa zure egunean eta muxu erraldoi bat etxekoan partez.

Futbol partidak Haranen**Azaroak 20, larunbata****■ 19:00 Infantilak:**

Udarregi Usurbil FT B-Ostadar SKT A

■ 10:30 Infantilak:

Udarregi Usurbil FT A-Urnieta KE

■ 12:00 Infantil neskek:

Udarregi Usurbil FT A-Amaikak Bat KE

Udarregi Usurbil FT B-Urnieta KE

■ 13:30 Kadete neskek:

Usurbil FT-Urnieta KE

■ 15:30 Kadete mutilak:

Usurbil FT A-Orioko FT A

■ 17:45 Preferente neskek:

Usurbil FT-Astigarragako Mundarro FKE

Eskubaloit partidak Oiardo kiroldegian**Azaroak 20, larunbata****■ 11:45 Infantil mutilak:**

Usurbil K.E-Elgoibar

■ 17:00 Kadete neskek:

Usurbil K.E-Inmo Azkue Pulpo K.E

Heriotzak**Manuel****Maiz Labaka**

Azaroaren 12an

hil zen,
97 urterekin

**Goardiako farmaziak**

Osteguna 18 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Ostirala 19 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Larunbata 20 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Igandea 21 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Astelehena 22 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Asteartea 23 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Asteazkena 24 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Osteguna 25 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Ostirala 26 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Larunbata 27 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Igandea 28 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
ETXEBARRIA AZUETA, AITZIBER
Andre Kalea, 48 "Cuevas"
943 55 17 93

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian dituzue ikusgai.

Agenda azaroa

19 ostirala

■ **NOAUA! Kulturaldia: Ruper Ordorikaren kontzertua**, 22:00etan Sutegin. Sarrerak agortuta.

20 larunbata

■ **"Santuenea elkarlanean": galdetegia betetzeko laguntza zerbitzua**, 11:00-13:00 artean, Santuenea 12ko lokalean.

■ **NOAUA! Kulturaldia: Tio Teronen semeak: "Festamentua"** dantza ikuskizuna. 19:00etan Mikel Laboa plazan. Euria bada frontoian. Doan.

21 igandea

■ **NOAUA! Kulturaldia: Don Inorrez taldearen kontzertua** 19:00etan Sutegin. Sarrerak NOAUA!n edota usurbilkultura.eus atarian.

Musika eta dantza, NOAUA! Kulturaldiaren azken txanpan

NOAUA! Kulturaldiaren lehen aste-buruan umorea izan zen nagusi. Bigarren asteburuan musika eta dantza izango dira protagonistak. Ruper Ordorika kantaria, Tio Teronen Semeak dantza konpainia eta Don Inorrez taldea ikusteko aukera aparta izango dugu datozen egunetan.

Azaroak 19, ostirala

■ 22:00 Ruper Ordorikak disko berria aurkeztuko du Sutegin: 'Amour eta to-jour'. Prezioa: 10 euro, bazkideek 8.

Azaroak 20, larunbata

■ 19:00 Tio Teronen Semeak: 'Festamentua' Mikel Laboa plazan. Euria bada, frontoian. Prezioa: doan.

Azaroak 21, igandea

■ 19:00 Don Inorrez taldeak 'Esku hutsik' diskoa aurkeztuko du Sutegin. Sarrera: 10 euro, bazkideek 8 eurotan.



Tio Teronen Semeak taldeak "Festamentua" ikuskizuna eskainiko du larunbatean.

Informazioa, sarrerak:

■ NOAUA!-ren egoitzan (bazkideentzako sarrerak NOAUA!ko egoitzan bakarrik eskuragarri) edo usurbilkultura.eus atarian.

Solasaldiak udal liburutegian

Azaroak 17, asteazkena

■ 19:00 "Bidea ipar" liburuaz solasaldia, Iker Karrera eta Unai Ugartemen diarekin.

Izen ematea: usurbilkultura.eus

Azaroak 24, asteazkena

■ 18:00 "MagiaZ: Magia eta Zientzia uz-tartuz, Marsel margoarekin" emanaldia Sutegin.

Izen ematea: usurbilkultura.eus

Datozenak

Covid19ak hildakoak gogoan

Haien omenezko ekitaldia prestatzen ari da Usurbilgo Udala; abenduaren 12an, 13:00ean izango da, Bizkarreko parkean. Erreferentzia gunea izango da etorkizunean; "Udalak Covid19aren ondorioz gertukoren bat galdu duten herritarrei doluminak helarazi nahi dizkie, eta, horregatik, gaixotasun horrek hildako herritarrak gogoratzeko leku iraunkorra egokituko du Bizkarreko parkean".

Gozogintza tailerra Santuenean

Azaroak 19/26

■ 17:00/19:00, Santuenea 12an, elkar-teko lokalean. Izen-ematea: 670027731.

Musika kalean DJ GorkaMendirekin

Azaroak 27 larunbata

■ 18:00/20:00 Santuenean. Jubilatuen lokala eta Santuenea Kultur Elkarteko lokalaren aurrealdean.

Elkarretaratzea

Astebete barru izango da Sarek deitutako elkarretaratzea, azaroaren 26an ostirala iluntzeko 20:00etan, Mikel Laboa plazan.

ARRANDEGIA
PELLO
ASTEARTETIK-LARUNBATERA
8:30-13:30
EGIN ZURE ESKAERAK WHASTAPP-ETIKI
650 31 31 91 USURBIL

Kima
MASAJE LEKUA
·KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA
Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

UDAZKENEKO

AZOKA

USURBIL

FRONTOIAN. AZAROAK 28. 10:00-15:00

Puzgarriak eta tailerrak

**11:00tatik aurrera zeramika tailerra
Buztin Zulo elkarteari esker.**

**Batu 10 puntu Hurbilago-ko
dendetan eta lortu haurrentzako
jolas parkerako sarrera.**

**Egunean bertan, Hurbilagoren
postuan, sarrera lortzeko
aukera egongo da.**

ANTOLATZAILEA:

hurbilago
USURBILGO MERKATARI ETA
OSTALARIEN ELKARTEA

LAGUNTZAILEAK:



Usurbil
Udala
gertu@go





Zozketa!

Yupi
jumping

Gure RRSS-ak bisitatu
eta parte hartu Urbileko
Jumping-ean ibiltzeko
30 sarreraren zozketan.

f @urbil @urbil_cc



Kontsultatu informazio gehiago www.urbil.es -en.

BLOG



urbil.es